

# BURUKETAK

1. Josebak 456 txapa zituen, baina lagun bati 432 eman dizkio. Zenbat txapa ditu orain?

ERAGIKETA:

ERANTZUNA: ______ txapa ditu orain Josebak.

2. Endikak futboleko ehun eta hogei kromo ditu. Bilduma berrehun eta berrogeita bostekoa da. Zenbat kromo falta zaizkio Endikari bilduma osoa izateko?

ERAGIKETA:

ERANTZUNA: ______ kromo falta zaizkio Endikari bilduma osoa izateko.

3. Bilera batean 315 lagun elkartuko dira. Hasi baino lehen, 125 gizon eta 98 emakume daude. Zenbat lagun falta dira?

ERAGIKETA:

ERANTZUNA: ______ lagun falta dira.

4. Elefante eme batek 4.500 kilo ditu, eta umeak, berriz, amak baino 3.182 kilo gutxiago. Zenbat kilo ditu umeak?

Idatzi zenbakia jarraian milakoan punturik jarri gabe.

ERAGIKETA:

ERANTZUNA: ______ kilo ditu umeak.

5. 8.540 lagunek eman dute izena maratoi batean parte hartzeko. 2.726 emakumeak dira. Zenbat gizonek hartuko dute parte maratoian?

Idatzi zenbakia jarraian milakoan punturik jarri gabe.

ERAGIKETA:

ERANTZUNA: ______ gizonek hartuko dute parte maratoian.

LIVEWORKSHEETS

6 Astelehenean 125 lagunek eman zuten izena ibilaldi baterako; asteartean, 196k; eta asteazkenean, 275ek. Zenbatek eman dute izena guztira?

ERAGIKETA:

ERANTZUNA: ______ lagunek eman dute izena guztira.

7 Tren batek 3 bagoi ditu, eta 5 kutxa daude bagoi bakoitzean. Hurrengo geltokian, beste bagoi bat gehitu diote. 5 kutxa ditu horrek ere. Zenbat kutxa daramatza orain trenak?

ERAGIKETA:

ERANTZUNA: ______ kutxa daramatza orain trenak.

8 Elenak txikle bat eta karamelu bat erosi nahi ditu. Txikleak 78 zentimo balio du, eta karameluak, 35 zentimo. Zenbat diru behar du Elenak bi gauzak erosteko?

ERAGIKETA:

ERANTZUNA: ____euro eta _____zentimo behar ditu bi gauzak erosteko.

9 Lehen Hezkuntzako 247 ikasle ibilaldi batera joan dira, 54 eserlekuko 5 autobusetan. Zenbat eserleku geratu dira hutsik?

ERAGIKETA:

ERANTZUNA: ____ eserleku geratu dira hutsik.

LIVEWORKSHEETS